

HERNANIKO "SAN JOAN GAUA" II IPUIN LEHIAKETA



SAN JOAN SUAREN MISTERIOA

(HERNANIKO "SAN JOAN GAUA" II IPUIN LEHIAKETAKO IRABAZLEA)

— Judith Montero —

Urtero bezala, iritsi dira hainbeste maite ditugun San Joan jai alaiak. Eta urtero bezala berdin gabilta, pipa azalez herria bete eta abezedario guztia daramaten goxoki multikoloreak irensten.

Hamahiru urtetako neska mutilez osaturiko talde bat gara eta ondo pasatzen dugu, baina ez beti. Askotan, beste neska mutil asko bezala, barraketan ibiltzen gara gure gurasoei eskatutako diru mordoxka gastatuz, eta gainera ez ordu erdi bat, ez, baizik arratsalde osoa!

Zortzirak laurden gutxi dira eta San Joan sua txoko on batetik ikusteko leku bila gabilta, gure "Flash"en azken puska tragatzearekin batera.

Nahiko leku ona aurkitu dugu eta beti bezala "nik honen ondoan nahi dut" eta horrelakoekin hasi gara. Ni Amaiaren ondoan eseri naiz, noski. Amaia nire lagunik minena da eta beti ibiltzen gara batera. Oso neska alaia, beti laguntzeko prest dagoena, kantari bikaina da eta pianojole bikaina da.

... Sua piztutzen ari dira, jendea alai dago; herria irribartsu dago eta ni pozik nago, baina ez dakit zergatik dudan lo egiteko gogo...

Non nago? Zer gertatzen da? Bapatean Amaia eta ni ez gaude Hernaniko plazan, edo bai?. Ez dakit, baina dena desberdina da, berdina den gauza bakarra Amaia eta nire bixigu aurpegiaren aurrean dugun sua da. Ametsetan nagoela uste dut eta horregatik, disimulo haundirik gabe hatzamarkada latza egin dut eskuan eta gorri iluneko ixuria ikusi dudanean, ametsetan ez dela halakorik gertatzen konturatu naiz. Amaiari begiratu diot eta ni bezala dabilela konturatu naiz, zerbait egin beharra dugu, baina zer?. Amaiari garraxika hastea okurritu zaio baina a zer nolako lotsa!. Nola hasiko gara ba, jendez beteriko plaza batean garraxika. Eta bi aldiz pentsatu gabe nire

hatzapar luzea ahoan jarri diot; -Amaia ixo! Ez gara hemen garraxika hasiko ez?

- Zergatik?

- Nik esaten dudalako! Gutxienez lehenengo ikus dezagun festa moduko hau eta gero ikusiko dugu zer egin.

Leku hark plaza bat zirudien baina ez nolanahikoa: zenbait etxe haundi besterik ez zegoen, harrizkoak, ez zegoen elizarik baina orain Santa Barbara mendia dagoen lekura begiratu eta goikaldean gaztelu bat ikus zitekeen. Plazan animalia ugari zegoen; behiak, zaldia, oiloak, zerriak, ahateak, eta astoak. Delako herri hartan bizi zitekeen jende guztia ere han zegoen; andreak marroi koloreko gona zatarrak zituzten, alkandora antzeko batzuk eta gehienek ilea askatua zeramaten, gizonak larruzko galtzak eta ardizko txalekoak zituzten eta haurrek untxi larruz eginiko mantoia zituzten.

Jende hura arraroa zen oso. Euren jatzeko era ez zegokien ez gazteluari eta ez harrizko etxeei, herri hartan misterioaren bat zegoen, gainera beste gauza arraro batez ohartu nintzen: jendea hankautsik zebilen eta itsas karakol eta hezurrezko idunekoak zeramatzen. Baina jende guztiaren artean bazeuden bi pertsona arrazoi kontaezin bategatik inportanteagoak zirela esango nukeena: neska gazte bat eta agure zahar bat. Neska oso ederra zen, eguzki distiratsu baten koloreko ile luzea zuen, itsasoaren urdin sakonaren begiak, argala zen baina oso giharretsua, bere joerengatik humila zirudien, baina bere begietan harrotasuna, ez, ez zen harrotasuna, baizik eta pertsona batek balio duen guztia dakienean, inortxok ez duela zapalduko dakienean duen zera hori.

Larru zurizko parka eta galtza batzuk zituen, txirlaz eginiko idunekoak eta parka perlaz be-

terik zegoen, gainera luma urdin distiratsuz eginiko marrazkitxoak zituen.

Agureak berriz, larru gorriz eginiko kapa bat zuen eta lepoan harri bitxiz ornituriko poltsa bat. Bertan balio haundiko zerbait zegoela uste dut.

Agureak itsasoko animalia baten maskorraz eginiko platilu bat atera zuen eta bertatik hauts batzuk atera eta sutara bota zituen suaren txinpartak berpiztuz. Gero beste katilu batean pasta gorri bat zuela ikusi nuen, eta zer egingo eta urre koloreko ilea zuen neskak praka eta galtzak kendu zituen, larruzko kulero batzutan geldituz. Agurea pasta gorriaz marrazkiak egiten hasi zen neskaren bizkarrean. Neska marrazkiz betea gelditu zenean herritar guztiak neskaren inguruan dantzan hasi ziren eta gero herritar bakoi-tzak janari eta fruituz betetako katilu batzuk hartu eta belaunikatu egin ziren katiluak gorantz jarririk.

Neskak katilu guztiak hartu zituen eta janari eta fruitu guztiak otar haundi batean jarri zituen, plazaren erdikaldean utziz, gero herritar guztiak saltoka eta barrezka hasi ziren eta otarreko janaria jaten.

- Festa arraroa ezta? - galdegin zidan Amaiak

- Bai. Aizu, zergatik ez gara neskarengana joaten?

Amaiak baietz egin zuen buruaz, eta hala, neskarengana abiatu ginen. Neska harrizko etxera sartzera zihoan baina gu ikusi eta gelditu egin zen gu itxoiten egongo balitz bezalaxe:

- Kaixo - esan zigun.

- Kaixo - esan genion. Amaia eta ni zur eta lur geunden.

Ondotik ikusita askozaz ere ederragoa zen oraindik.

- Nirekin hitzegitera etorri zarete? - galdegin zigun eta guk ezer ezin asmatu eta:

- Bai - esan genion.

-Etorri, etorri etxe barrura, ez dut soldaduak ikusterik nahi.

- Zer soldadu?.

- Harri hoien atzean ikusten al duzu lumarik?.

- Bai (gezurra zen baina...)

- Hor atzean soldadu bat dago eta ongi begiratzen baduzu ikusiko duzu zenbat dauden.

Etxe barrura sartu ginen eta ia ia garraxika hasten naiz. "Nik espero nuena" esan nion Amaiari. Egon gelara sartu ginen baina han ez zeuden egon gelan egoten diren haltzariak: paretak eskuz egindako telarrez eta animalia desberdinen larruz zeuden forraturik. Bazter batean otarrak, sukalde tresnak, harriak, lastoa eta urtxakur bat hustuta eginik zegoen medizina poltsa bat zeuden. Gelaren erdikaldean lastoz eta larruz eginiko ohe antzeko bat zegoen eta gelaren beste aldean, zer ikusiko eta hartz baten buru hezurra !

Gela hartan zeuden gauza guztiak gela ezik aintzinakoak ziren.

- Eseri zaitezte nahi baduzue eta hasi hitzegiten - esan zigun neskak ahots goxoz.

Hirurak eseri ginenean hitzegiten hasi nintzen:

- Barkatu lehenago ez esateagatik, baina nik Nerea izena dut eta berak Amaia. Gaur gure herriko San Joan sua ikusten ari ginela bapatean hemen azaldu gara...

- Nola dakizue bere izena?

- Ze izen San Joan Gure herriko, Hernaniko jaiak San Joanetan izaten dira.

- Nola? San Joan, ni margotu nauen agurea da eta zergatik esaten duzue gaur San Joan suaren eguna dela? Gaur UDA HANDIAREN hasieraren eguna da. Barka baina ze urtetan bizi zarete zuek?

- Gu? 1992. urtean - eta neskak garraxi egin zuen.

- Lagundu egin behar diguzue. Ni hemen jaio nintzen orain dela hamasei urte, han goiko gazteluan, baina arazoa ni bakarrik ez nintzela jaio izan zen, ahizpa bixki batekin baizik, gure gurasoak oso arduraturik zeuden, zeren eta eurak hiltzean, nor geldituko zen ondasun guztiekin? Guk bost urte egin genituenean zoritxarrez biak hil ziren gaitz batek jota. Nire ahizpa betidanik gaiztoa zen baina orduan sorgin gaizto baten-gana joan eta edari magiko bat emanez iragane-ra bidali ninduten. Aintzinean pertsona talde honek hartu ninduen eta gauza asko ikasi nituen; batez ere magia eta medizina, urteen urtez, berriz urte hauetara itzultzeko formula bilatzen aritu naiz. Aintzinako bizitza ederra zen, baina gure lurraldeetan geroztik eta lurrikara gehiago zeuden eta formula bilatu izan ez banu ziur nago orain denak hilik egongo ginela. Baina herri ho-

netara iritsi ginenean San Joan agurea bakarrik aurkitu genuen bertan. Nire ahizpa urteekin geroz eta gaiztoago jartzen joan zen eta herritarrei dena kentzen zien, azkenean herriko jendea nazkatuta joan egin zen, San Joan ezik. Ikusi al duzue harri bitxizko poltsa bat San Joanen lepoan?

- Bai - esan genuen azkar Amaiak eta nik.

- Poltsa hori nirea zen eta sorginak iraganaldira bidali baina momentu bat lehenago nik San Joani eman nion, gordetzeko esanez. Poltsa hori magikoa da eta jazten duen guztia ona bihurtzen da betirako, baina arazoa zera da: badagoela horrelako beste poltsa bat baina jazten duen guztia gaiztoa bihurtzen da. Poltsa hori nire ahizpak du eta guk egin behar duguna zera da: nire ahizpari poltsa kendu eta sutara bota, baina gaur.

- Zergatik gaur?

- UDAREN HASIERAKO festan bakarrik erretzen da poltsa eta ezin dugu urte bat itxoin, gaur ez badugu egiten, akabo: ezin aintzineratu bueltatu, eta soldaduz inguraturik...

- Baina nola lagunduko dugu guk?

- Hirurak gaztelura joango gara, nik nire ahizpa entretenituko dut, zuek poltsa kendu eta azkar plazako sutara bota.

- Baina nola aterako gara hemendik?

- Nik prestatutako edari hau edaten badugu, hegan egin dezakegu.

- Orduan erraza izango da - mundu honetan entzun behar izaten diren zozokeria horietako bat esan zuen Amaiak. Neskak zuen aurpegia ikusita hori galdetzea ere...

- Ez, ez da erraza izango - piska bat triste - nire ahizpak oso ondo engainatzen du, hitzegiten entzuten baduzue berarekin gelditu nahiko duzue.

Besterik esan gabe gazteluko bidean jarri ginen. Herrian zeuden soldaduek harriturik begiratzeko gintuzten eta gezi zorrotzak botatzen zizkiguten. Momentu batean ikara pasatu nuen gezi batek ia ia nere hanka zeharkatu zuenean eta orduan konturatu nintzen guzti hura ez zihoala txantxetan eta nere bizitza preziatua gorde nahi banuen kontuz ibili beharko nuela. Hegan egiteko ahalmena izatea gozada bat zen baina ez

zen, ez, gozada soldadu memel batzuen geziak saihesten joatea;

- Aii!! - egin nuen oihu gezi batek urratu nahiko sakona egin zidanean.

- Min handia egin al dizu?

-Ez, ez, lasai - gezurra zen, zeren eta ikastolan izan bazen hori azkar asko joango nintzen etxera, baino utz dezagun hau.

Azkenik gaztelura iritsi ginen eta neskaren ahizpa afaltzen zegoen. Leihotik begiratzean aho zabalik gelditu nintzen: Egon gela hartan mundu guztiko tresna ederrak zeuden, neska gazte asko zeuden, batzuk setaz jantzirik, harri bitxiz horniturik, eta ederrak, oso ederrak. Leku hark paradisua zirudien. Erdikaldean mahai bat zegoen. Eta bertan inoiz ikusitako fruiturik ederrenak zeuden, pastelak, opilak, moeta guztietako txokolatadak, hau da, ni bezalako ume baten amets gozoenean aurki daitekeen dena zegoen han. Gainera gelaren beste aldean Kleopatraren bainera zirudien urrezko bainera. Baina neska gazteengan zerbaitek harritu egin ninduen; noizean behin gerezi edo bonboien bat hartzen zuten eta orduan oso pozik eta oso ederrak zeuden, baina geroago, larritutasun aurpegia jartzen zitzairen eta beste zerbaitek jartzen zitzairen. Neskari ea zer gertatzen zen galdetu nioenean, zera esan zidan:

- Neska horiek bazekiten zein gaiztoa zen nire ahizpa, eta horregatik guk egingo duguna egitera etorri ziren. Baina nire ahizpak engainatu egin zituen eta orain ezin dira hemendik atera. Noizean behin egin zutenaz oroitzen dira eta orduan mahai horretako goxokiren batekin, hain dira goxoak, ze pena guztiak kentzen dizkizue, kontsolatzen dira. Neskak horiek salbatzeko era bakarra nire ahizpari poltsa erretzea da.

Gazteluko egon gelara sartu ginen: neskaren ahizpak ez zuen erreakzionatzen, ezin zuen sinetsi. Neska bitartean korrika bizian joan zen gelaren beste aldera eta oraindik ezin ulertu dudana indarrez bainera altxa eta bota egin zuen. Neskak korrika bizian hasi ziren eta neskaren ahizpak, inoiz entzun dudana ahots polit eta goxoenez geldirik egoteko eskatu zien. Ni orduan lepoko poltsa kentzera joan nintzen, baina mahaia aurretik pasatzean nire bizitzako tentatidirik haundiena izan nuen. Amaiak ez ezer hartzeko agindu zidan, baina begiratzeko ez zegoenean, ahal nituen bonboi guztiak sartu nituen

poltsikoan geroago jateko asmoz. Karate giltza batzuk eginda (ni ez naiz Bruce Lee baino itxurak behintzat egiten ditut) azkenean lortu nuen poltsa kentzea eta Amaia eta ni hegan abiatu ginen plazara, baina plazara iritsi aurretik, Amaiari besoa zauritu zioten eta lurrera erori zen. Nik ezin nuen Amaia han utzi eta nirekin eramanez nuen baina asko kostatu zitzaigun pixka bat aurreratzea eta azkenean soldadu batek harri-patu gintuen eta poltsa kentzera zioanean... Es-ku bat ikusi nuen !!O!! San Joan zen, Carl Lewi-sen antzera korrika joan eta poltsa sutara bota zuen!!

Azkenean dena bukatu zen eta orduan poltsi-koan nituen bonboiak atera eta ahora eramatera nihoanean... Karate giltza bat eginez bonboiak lurrera botaz agertu ziren neska eta bere ahizpa oso pozik:

- Linea mantendu behar duzue! - esan zuten neskak eta bere ahizpak.

Azkenik denak pozik bukatu zuten maitaga-rrien ipuinetan bezela; Amaia eta ni ezik, gu bonboi gabe eta urratuz beterik bait gaude! ○

